

ERRENTAREN GAINEKO ZERGA KALKULATU

Euskadin bizi naiz
eta Akitania-Berrian
lan egiten dut

Errentaren gaineko zerga kalkulatu

Gipuzkoan bizi eta zerga aplikatzen zaien irabaziak (laneko etekinak, jarduera ekonomikoak, kapital higigarri eta higiezinak, gainbalioak,...) dituen pertsona orok du, modu orokorrean, errenta aitortpena egiteko betebeharra. Halere, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidatzeko betebeharra ez zaie aplikatuko honako iturrietatik soilik irabaziak jasotzen dituztenei:

- Kapitalaren etekin gordinak, barne direlarik salbuetsiak direnak eta gainbalioak elkarrekin 1600 euro urtean gainditzen ez badute.
- Orokorki, (salbuespenak salbuespen), lanaren etekin gordinak, gehienez urteko 12.000 euro muga batekin pertsona bakar batentzat.

Kasu gehienetan, PFEZ errentaren gaineko zerga aurretiaz ordaintzen da, eta ordaindutako zenbatekoa aitortpenaren emaitzatik kenduko da. Errenta aitortpena urtean behin egiten da. Lehenik eta behin zerga eragiten duten pertsona baten irabaziak kontuan hartu behar dira. Nagusiki hauek dira kontuan hartzen:

- Lanaren etekinak.
- Jarduera ekonomikoen etekina.
- Kapitalaren etekinak.
- Gainbalioak eta minusbalioak.
- Foru Araudiak finkatutako errentaren gaineko zergak.

ERRENTAREN GAINEKO ZERGA KALKULATU

Euskadin bizi naiz
eta Akitania-Berrian
lan egiten dut

Hortik aurrera hasiko da PFEZ-aren oinarriaren kalkulua. Bi oinarri dauzka:

- Oinarri orokorra: horri aplikatuko zaizkio konpentsazio-prestazioen eta elikadura pentsioen, aurreikuspen sistemetan ezarritakoa eta zerga amankomun bati loturiko kenkariak. Hemen, Frantzian ez bezala, bikote batek zerga aitorten bateratua egin dezake, ala bakoitzak berea. Frantzian berez horrelako aukerarik ez dago. Dagoen aukera bakarra bikotearentzako aitorten bakarra aurkeztea da.
- Aurrezkiaren oinarria. Honek kapitalaren etekinak, gainbalioak eta minusbalioak biltzen ditu.

Ondotik, zergaren zenbatekoa kalkulatzeko errentaren taulak eta aurrezkiaren taulako kopuruak gehitu beharko dira.

Oinarri orokorraren tasak honakoak dira.

Gipuzkoako zergak: Oinarri orokorreko tasak

oinarri orokorra (Euro)	Zergaren zenbatekoa (Euro)	Zenbateraino (Euro)	Tasa aplikagarria (%)
0	0	15 550,00	23,00
15 550,00	3 576,50	15 550,00	28,00
31 100,00	7 930,50	15 550,00	35,00
46 650,00	13 373,00	19 990,00	40,00
66 640,00	21 369,00	25 670,00	45,00
92 310,00	32 920,50	30 760,00	46,00
123 070,00	47 070,10	56 390,00	47,00
179 460,00	73 573,40	Au-delà	49,00

Iturria: Gipuzkoako Ogasuna

ERRENTAREN GAINEKO ZERGA KALKULATU

Euskadin bizi naiz
eta Akitania-Berrian
lan egiten dut

Aurrezki-oinarriaren tasak honakoak dira.

Gipuzkoako zergak: aurrezki-oinarriaren tasak

Aurrezki-oinarria (Euro)	Tasa aplikagarria %
Jusqu'à 2 500,00	20,00
De 2 500,01 à 10 000,00	21,00
De 10 000,01 à 15 000,00	22,00
De 15 000,01 à 30 000,00	23,00
De 30 000,01 à au-delà	25,00

Iturria: Gipuzkoako Ogasuna

Emaitza horretatik kendu beharko dira plan orokorrak finkatzen dituen kenkariak.

- Kenkari familiakoak eta pertsonalak (ondorengo ahaideak, haurrentzako elikadura prestazioak, aurreko ahaideak, elbarritasuna, zahartzaroa).
- Ohiko etxebizitzari loturiko kenkariak (erosia edo alokatua izanik). Frantzian etxebizitza erosteari edo alokatzeari buruzko kenkaririk ez dago. Ba daude ordea ohiko etxebizitzak egiten diren konponketa edo hobekuntza obra batzuei loturiko kenkariak, adibidez etxebizitzaren eraginkortasun energetikoarentzat.
- Gipuzkoan jarduerak sustatzearen aldeko kenkariak, dohainak eta beste.

Hortik aurrera, aurretiaz ordaindu diren kopuruak lortutako emaitzari kendu eta ordaindu beharrekoa lortzen da.

2018ko abuztua